



CIRCUITO DE ARTE CONTEMPORÁNEO EN NAVARRA
ARTE GARAİKIDEKO ZIRKUITUA NAFARROAN

ZATIKAKOTASUNA

2025/10/01 - 2026/03/01

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Jaime Eguaras Roa

Castejón

David Anocíbar Arroqui

Lodosa

Héctor Urrea

Agoitz

Javier Muro

Berriozar

Amaya Suberviola

Lesaka

Carmen Salgado Amado

Faltzes

María Jiménez Moreno

Irurtzun

Meryan Rivers

Los Arcos

NAVARRA † NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Aurkibidea

Zatikakotasuna

Artelan baten aurreko esperientziarako gida

Artistak

Ekipamendua

Mapa

Egitaraua

Jaime Eguaras Roa > Castejón

David Anocíbar Arroqui > Lodosa

Héctor Urra > Agoitz

Javier Muro > Berriozar


Amaya Suberviola > Lesaka

Carmen Salgado Amado > Faltzes

María Jiménez Moreno > Irurtzun

Meryan Rivers > Los Arcos

Beste jarduerak



zatika- ko- tasuna

Fluxu hitza
latinezko
“*fluxus*”
hitzetik dator,
eta jariatzea

esan nahi du. Kontzeptu hori honako ideia honekin lotzen da: lurraldean barna ibiltzea, bidaiatzea, toki batetik beste norberaren buruari eramaten uztea. Eta hori guztia, ezustekoak, topaketak eta esperientzia positiboak eta esanguratsuak biltzeko, gure bizitza aberasteko. Errepide, zubi eta bide andana ezker-eskuin, ibarrak, eskualdeak eta udalerriak komunikatuz. Nafarroako natura-, ondare- eta kultura-inguruneaz gozatzeko aukera ematen digute. Bestalde, arte-jarduna proposamenen arintasunak, jariatortasunak definitzen du, diziplina, estetika eta oinarri desberdin eta azkenik gabekoak kontuan hartuta. Era berean, ezin konta ahala izanen dira arte garaikidera hurbiltzeak dakarren lilura esperimentatzen duenaren oroitzapenak, irakurketak eta interpretazioak.

Fluxu proiektuak ekintzak aktibatu nahi ditu lurraldeko hainbat tokitan, gizarte-eragileen, elkarteen, kolektiboen, ikastetxeen eta, oro har, herritarren topaketa eta ekarpena bultzatzeko. Horretarako, artea tresna ezin hobea da elkarrizketara eta parte-hartzera gonbidatzeko.

Proposatzen dena da artelan bat edo multzo txiki bat udal-espazioetan aldi baterako erakustea. Kasu batzuetan, proposamen artistikoak lankidetzatailerretan sortuko dira. Artea gozamenerako eta inklusiorako gunea da, hausnartzeko, askatasunez sentitzeko, entzuteko eta irudimena zabaltzeko. Fluxu proiektuaren edizio honetan, proiektu osoaren aterki kontzeptuala zatikakotasunaren inguruan dago lotuta. Gure pertzepzioa beti da errealitate handiago baten zati. Bestetasunari buruz dugun kontzeptua. Zatikatatutako irudien kontsumoaren aro digital honetan iristen zaigun informazioa. Ispilu baten bidez ikusten dugun gure isla, bizi dugun

munduaren nozioa, ematen ditugun iritziak, gure herrietako kaleen ikuspegia... hori guztia errealitatearen zati da. FLUXU proiekturako hautatutako artelan guztiek lotura zuzena edo zeharkakoa dute zatikatzearekin.

Fermín Alvira
Komisarioa

Artelan baten aurreko esperientziarako gida

Arteak begirada sentikorrak eta gogoetatsuak proposatzen ditu hainbat hizkuntza eta ikuspegitatik. Obra egin zuen pertsonak zer pentsatu edo sentitu zuen susma dezaket, baina garrantzitsuena da zer mugitzen den nire baitan obraren aurrean paratu eta ditudan bizipenekin. Jarrera ireki, ludiko eta malgu batetik abiatuta, arteak eskaintzen duen aberaste intelektual, emozional eta espiritualaz goatzera irits naiteke.

Artelana aztertzekeo jarraitu beharreko urratsak:

1 Deskribapena eta lehen galderak

Deskribapena:

- Obra figuratiboa: Zein da gaia?
Generoa: erretratua, paisaia, natura hila, gai erlijiosoa, mitologikoa, historiakoa, kostunbrista...
- Obra abstraktua: Elementuak, formak, koloreak, testurak, etab.

Lehen galderak:

- Mundu errealekoa da edo alegiazkoa da? / Istorio bat kontatzen du?
- Pentsamendua (intelektuala) edo sentimendua (emozionala) esnarazten dit?

2 Identifikazioa

Obraren fitxa teknikoa: Egilea / Titulua / Gauzatze-urtea / Teknika, euskarria eta materialak / Dimentsioak

3 Azterketa formala

- Formatua / Eskala / Konposizioa / Ikuspegia
- Elementu protagonistak eta bigarren mailakoak.
- Marrazketa / Kolorea / Forma organikoak edo geometrikoak
- Espazioa (perspektiba - lautasuna)
- Mugimendua eta norabidea (goranzkoa, ausazkoa, horizontala)
- Argiaren tratamendua (leuna edo dramatikoa)

- Pintzelkada (pinturan)/Testura eta baoak (eskulturan)

4 Azterketa historikoa

GARAIA / MUGIMENDUA / ESTILOA
Alderdi tematikoak eta plastikoak / Lotura konparatiboak

EGILEAK

Biografia eta testuinguru sozial eta artistikoa / Eraginak

OBRAREN HISTORIA

Jatorria / Historia eta anekdotak


5 Analisi emozionala


Aldatu al da nire emozioa artelana aztertu ondoren?

Gogoeta egiten dut esku-hartze artistiko honen proposamenari buruz?


Nola sentitzen naiz oraintxe bertan haren aurrean?

Mapa






Amaya Suberviola




David Anocíbar Arroqui




María Jiménez Moreno



Javier Muro



Jaime Eguaras Roa



Carmen Salgado Amado



Héctor Urrea



Meryan Rivers



Fermín Alvira
KOMISARIOTZA



Jyotima Barrenetxea
BITARTEKARITZA



Zuzene Seminario
BITARTEKARITZA



Mikel García
KOORDINAZIOA



Toni Sasal
DOKUMENTAZIOA



Egitaraua





Jaime Eguaras Roa

CASTEJÓN

Castejongo Museoa
2025/10/01 - 2025/10/26

HARAGIA ETA LOREAK

Inprimaketa xerografikoa paper sulfurizatuaren gainean

Proiektu honetan maskulinitatea lehengoratzeari eta berrerratzeari buruz hausnartzen dut, prozesu terapeutiko-artistiko bat egin ondoren nire aurreko lanarekin (Larrupean. Translazioak eta disonantziak). Gaur egun, ariketa batzuk egiten ditut praktika artistikoan, prozesu horren zati bat gauzatzeko eta nire nortasuna proban paratzeko, genero maskulinoarekiko nire identitatea modu osasuntsuan berrezartzeko. Azterketa horrek barne hartzen du introspektzio pertsonala, eta zalantzan paratzen ditu belaunaldietako rolak, tradizioak eta transferentziak. Hizkuntza eraldatzaileak eta gogoetatsuak bilatzen ditut, galdera existentzialez beteak: Zer egin dezaket? Zer egin behar dut egoera hauetan? Araztasuna eta lohikeria elkartzen dira nire sorkuntza-prozesuan. Zuzeneko estetika zikin baten bilaketa da, lore aromatikoekin eta forma alienigenoekin.

Urriaren 10ean, 19:00etan. Castejongo museoa.
Performancea, Jaime Eguaras Roa artistaren eskutik.





David Anocíbar Arroqui

LODOSA

Kultur Etxea

2025/10/24 - 2025/11/16

UHANDREAK

Olio-pintura mihise gainean

Formatu handiko obra, Eraman nazazu dantzara proiektukoa (2020-2023). Proiektu hura esperientzia pertsonaletatik sortu zen, eta dantzatzera joatearen ekintza landuz identitate-erritual gisa: nork bere burua bilatzeko modu bat, hainbat leku, pertsona eta bizipenen bidez. Konposizioan posizio horizontalean lotutako lau irudi agertzen dira; ur-mugimendua iradokitzen dute. Hala ere, irudiak oroitzapen oso zehatz bat ukitzen du: diskoteka bateko komuna, erabat ispiluz forratutakoa. Angelu eta erreflexu anitzek gorputzen ikusizko errepikapen bitxiak sortzen zituzten, efektu optiko hipnotikoa, itxaronaldietan ustekabeko entretenimendu bihurtzen zena. Ideia hori bat dator FLUXU 2025en proposamenarekin: zatikakotasunaren pertzepzioa.

Urriaren 24an, 21:00etan. Kultur Etxea.

David Anocíbar Arroqui artistaren erakustaldia: erretratu naturala, modeloarekin.





Héctor Urra

AGOITZ

Kultur Etxea

2025/11/14 - 2025/12/14

POETIKA

Ezki zur polikromatua

Tailu honetan, emakume bat ikus daiteke, janzkera atemporala duela eta eskuetan osagarri batzuk dituela. Zur kolatu, mihiztatu eta ondoren zizelkatuz egindako aglomeratu batek osatzen du irudia. Forma horretan sartzen dira, prozesu artistikoaren berezko beldurrak, zalantzak eta saiakerak ez ezik, baita arrakastaz buruturikoak, lanbidearekiko grina, materia eta sentsazioak ere. Unez osaturiko gorputza.

Abenduaren 5ean, 19:00etan.
Topaketa Héctor Urra artistarekin.



Javier Muro

BERRIOZAR

Kultur Etxea

2025/11/19 - 2025/12/19

IKUSGAI (*Denak izan dezala zentzua, ez badu ere bai Seriekoa*)

Instalazio kolaboratiboa

Proposamen kolaboratiboa, parte-hartzaileek harakin-kako batetik zintzilika ditzaten obraren, multzoaren ikuspegi pertsonalarekin, gogo-aldartearekin eta prozesu psikologikoarekin zerikusia duten objektuak. Kakoan sartu ondoren, esekitoki batean paratuko dira, dendako jantzi gisa. Ikusgai izenarekin erreferentzia egin nahi zaio agerian, arriskuan jartzeari. Ikusgai dagoena agerian dago. Kakoak irakurketa paraleloak ematen ditu. Oro har, obra, erakusketa, bizitzaren metafora izanen da, zeinetan denak izanen duen akabera zentzua, hasiera batean ez badu ere.

Azaroaren 28an, 19:00etan. Kultur Etxea.

Topaketa Javier Muro artistarekin.

Amaya Suberviola

LESAKA

Liburutegia (Harriondoa)

2025/12/12 - 2026/01/18

SPAM-01

Laserrez moztutako paper gaineko olio, publiziterako kanpoko bi beira-arasetan sartua

Ikuspegi plastikotik, interesatzen zait nola eragiten duten irudien euskarriek haietan: edukizaileak nola manipulatzeko duen edukia. Nire pinturan elkarrizketa hori landu dut, pantailak, monitoreak eta publizitate-euskarriak erabiliz. Piezak premisa horretan oinarritutako obra bat sartzen du, eta olioari buruzko diptiko bat duten publiziterako bi beira-arasetan kokatzen du. Diptiko hori ordenagailu baten mahaigainearen leihoak jarri eta konbinatzean sortzen den joko digitalaren itzulpen fisikotik sortzen da, pintura-mihiztaduren bidez. Horrela, pintura pantailaren berezko prozesuen transposizio material bihurtzen da. Emaitzak beste urrats bat ematen du itzulpen horretan, euskarria bera obraren osagaitzat hartuz.

Urtarrilaren 16an, 18:00etan. Liburutegia. Harriondoa.
Topaketa Amaya Suberviola artistarekin.





Carmen Salgado Amado

FALTZES

Liburutegi publikoa. Kultur etxea.

2026/01/12 - 2026/02/06

ATOMOA

Objektu-kaxa, mihizatzea, collagea, pintura, marrazkia.

Nire proposamenak honako gai hauek jorratzen ditu: haziak sortzen didaten jakin-mina, duten potentziarekiko etengabeko mirespena, askotan txiki-txiki den elementu bat izanik zenbaitetan duten indar atomikoa, beste batzuetan hautemanezina dena eta hazkuntza-mekanismo zoragarri bat sortzen duena, deusetik sortuz bizitzarako hain handi eta funtsezkoa den gauza. Miresmena eragiten didate ereiteko goizean goiz esnatzen diren pertsonek, hazia barreiatzen duen haizeak, intsektuek eta biodibertsitatearen osasunean eta kontserbazioan parte hartzen duten izakiek, eguzkiak, euriak, animaliek. 30 objektu-kaxa sortu ditut, bizi garen ekosistemarekin lotutakoak. Bizi garen ekosistemaren zati bat besterik ez dugu ikusten. Presak harrapatutako planeta batean murgilduta bizi garela, kontenplazio pausatuak aukera ematen dit irudiaren misterioa birsortzeko, sentituz aintzat hartzeko, irudikatuz kontatzeko.

Urtarrilaren 17an, 11:00etan. Liburutegi publikoa. Kultur etxea.

“Hazia naiz” haurrendako tailerra, Carmen Salgado Amado artistak zuzendua.

Urtarrilaren 24an, 11:00etan. Liburutegi publikoa. Kultur etxea.

“Hazia naiz” helduendako tailerra, Carmen Salgado Amado artistak zuzendua,





María Jiménez Moreno

IRURTZUN

Barazkigune

2026/01/30 - 2026/02/28

EHUNA ETA BILBEA

Instalazio kolaboratiboa

Ehuna eta bilbea esku-hartze kolaboratibo bat da, non, ehungintzatik abiatuta, Irurtzun herriaren nortasuna osatzen duten narratiba desberdinak ikusarazi nahi diren. Axitarteko arrolaren iruditik eta harkaitz horiei buruzko tokiko kondairatik abiatuta, proiektuak, parte-hartzaile bakoitzaren kontakizun pertsonalaren bidez, inguruko errealitate geografikoaren, ingurumenekoaren, sozialaren, kulturalaren eta sinbolikoaren ikuspegi globala, heterogeneoa eta integratzailea osatu nahi du.

Urtarrilaren 31n, 12:00etan.

Topaketa María Jiménez Moreno artistarekin.



Meryan Rivers

LOS ARCOS

Kultur Etxea

2026/02/06 - 2026/03/01

HARAGI ORO DA BELAR




Instalazio kolaboratiboa

Obra hainbat ahotsek deitzen duten prozesu komunitario batetik sortzen da, esperientziatik eta irudimenetik abiatuta, bereizten gaituzten hausturak eta eusten diguten loturak pentsatzeko. Irudi zatikatuak — oso gutxitan ikusten den ibilbide bateko pistak — objektuak, kontakizunak eta isiluneak biltzen dituen mahai kolektibo batekin bizi dira. Barru-barrukoaren eta komunaren artean, alderdi fisikoaren eta ukiezinaren artean, instalazioak espazio bat irekitzen du geure buruari galdetzeko zertaz elikatzen garen, zer gogoratzen dugun eta nola egiten diogu aurre etorkizunari batzen gaituen hori zatikatzen duen mundu batean.

Otsailaren 7an, 19:00etan.

Merienda/topaketa Meryan Rivers artistarekin.





Beste jarduerak

“ZATIKAKOTASUNA” mahai-ingurua

Carmen Salgado Amado, Héctor Urrea eta Meryan Rivers. Moderatzailea: Fermín Alvira.
Urtarrilaren 31n, 19:00etan. Nafarroako Museoa.

Itxiera jardunaldia

Martxoaren 6an, 19:00etan. Nafarroako Museoa.